

DROGETEN

**San Martin
giroan
murgilduta**

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko URRIA · 348 zenbakia





Azaroaren 7tik 30era Tripontziak menuak 38€ tara!

Baratze Taberna
Belaustegi Baserria
Hiru Bistro
Itsaslabarrak Jatetxea
Pikua Jatetxea
Trabakua Behekoa Jatetxea
Urgain Jatetxea









**HAIN
GIPUZKOA**
DONOSTIA



**DEBA
BARRENA**



Debegesa
Debabarenako Garapen Agentzia



San Martin Kulturala 2025

Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, urriaren 31n, 20:30ean




Andoni Egaña 	Irene Basagoiti 	Unai Iturriaga 
Alaia Martin 	Aitor Bizkarra 	Maialen Lujanbio 
Gai-jartzailea: Maite Berriozabal 	 Sarrera: 10€ Salgai Lobiano Kulturagunean, tickets.kutxabank.es webgunean eta Kutxabankeko orotako kutxazainetan.	

Bertoko kantuak Herritarron ahotik

Gaia: Ume-kantua

Katarramixon

(Entzuteko: www.alboka.es)

drogetenitturri.eus

Katarramixon.
Arabakua.
Nun izan?
Araban.
Zer eitxen?
Gazta ta ogixa erosten.
Nun gorde?
Armarixo zaharrian.
Txakurrak eta katuak jan...
Xapi! Xapi! Xapi! Xapi!



**Euskal
Birusa
Elkarteak**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogetenitturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Peio Lopez.

LAGUNTZAILEAK:

Miguel Fernández, Julene Irazu,
Patxi López eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Carmen Allende, Eneritz Aranburu,
June Argüello, Markel Bazanbide,
Rosa Bengoa Lizaso,
Estibalitz González, Sergio Izan,
Valentin Mugarza, Olga Olañeta,
Mentxu Sainz de Ibarra
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Aimar Ferrerio,
eta Unai Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogetenitturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



June Argüello · Mexiko

“Bueltatzean, mundua ezagutzera joateko gogoa sentituko dudanaren beldur pixka bat dut”

Uztailaren 29an heldu zen Pueblara (Mexiko) June Argüello ermuarra, eta bertan egongo da urtarrilera arte. Haur Hezkuntzako ikasketen zati bat burutzen ari da bertan, eta Mexiko eta bertako bizimodua sortzen zioten jakin-min berezia asetzeko aukera ezin hobeaz gozatzen ari da.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Zergatik erabaki zenuen joatea?

Hasieratik oso argi neukan halako esperientzia bat bizi nahi nuela. Aukera paregabea eta oso aberasgarria iruditzen zitzaidan beste herrialde batean eta beste kontinente batean ikastea. Uste nuen horrek gauzak beste ikuspegi batetik ikusten lagunduko zidala, ilusioa eta gogoa emango zizkidala ikasten jarraitzeko, esperientzia berriak bizitzeko eta pertsonalki hazten jarraitzeko. Gainera, hasieratik nuen Latinoamerikara joateko nahia, eta Mexiko eta bertako bizimodua eza-gutzeko jakin-min berezia sentitzen nuen.

Sei hilabete emango dituzu etxetik kanpo...

Bai, denbora tarte egokia iruditzen zitzaidan, nahiz eta orain, hemen egonda, gehiago geratzeko gogoa duan, baina ez ziguten urte osorako aukerarik ematen.

Zer egiten duzu han?

Batez ere ikasi egiten dut. Gure ikasketei ez diete “Haur Hezkuntza” deitzen, baizik eta “Prozesu Hezitzaileak”. Oso antzekoa da, baina gai gehiago jorratzen dituzte; ez dira soilik irakasle izateko prestatzen, baizik eta hezkuntzarekin lotutako beste arlo batzuetarako ere bai, orokorragoa baita hezkuntzaren ikuspegitik. Gero Mondragon Unibertsitatera bueltatzean, ekarpen berriak egiteko ere balioko dit. Jakina, hemen egotea



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN




**JULEN IZARRA
GARRAIOAK**

**Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339**

**AMAIA
HARATEGIA**



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



ez da soilik ikastea: aprobetxatzen dugu bidaiatzeko, herrialdea eta kultura ezagutzeko, eta bertako bizimodua esperimentatzeko. Ikasle moduan etortzea aukera paregabea da denbora ondo aprobetxatzeko.

Zer egiten duzu eskola ez daukazu egunetan?

Egia esan, egun libre gutxi ditugu, beti topatzen dugulako zerbait egiteko. Batzuetan egun-pasa egiten dugu hemendik gertu, eta besteetan bidaia luzeagoak: kostaldera joan gara, herri txikiago eta bereziak ezagutu ditugu, baita hiri handiagoak ere, hala nola Oaxaca edo Mexiko Hiria.

Eta hizkuntzari dagokionez?

Hemen gaztelaniaz egiten dute, Latinoamerikako azen-tuarekin. Pueblan ez dira hizkuntza natiboak entzuten egunerokoan, nahiz eta Mexikoko beste toki batzuetan bai. Gustatzen zait bertako hitzei eta esamoldeei erreparatzea, oso bitxiak eta interesgarriak iruditzen

"Gustatzen zait bertako hitzei eta esamoldeei erreparatzea, bitxiak eta interesgarriak iruditzen zaizkit"

"Ohikoa da ikasleek baldintza pertsonal ezberdinak izatea, edo gelan bertan zerbait saltzea"

zaizkit, eta klaseetan askotan alderatzen ditugu haien eta gure esamoldeak. Oso ohikoak dira, adibidez, "wey", "no mames", "chido" edo "peda".

Zerbait oso desberdina dela esango zenuke?

Bai, batez ere ikasteko modua eta unibertsitatearen antolaketa. Orokorrean, ikasleek oso serio hartzen dituzte ikasketak. Gainera, ohikoa da ikasleek baldintza pertsonal ezberdinak izatea: klaseetara seme-alabak ekartzea, edo ikasleek gelan bertan zerbait saltzea, adibidez.

Eta janaria? Zein da bertakoa?

Janaria benetan berezia eta askotarikoa da. Hasieran arraroa egin zitzaidan, baina azkar ohitu nintzen. Bitxikeria moduan, edari alkoholdunei *tajina* (txile piper hautsa) jartzen diete normalean edalontziaren inguruan, eta, noski, tekila ez da inoiz falta!

Faltan botatzen duzu Ermua?

Egia esan, espero nuena baino gutxiago. Uste dut badakidalako noiz bueltatuko naizen eta denbora azkar pasatzen ari delako. Hala ere, badaude gauza batzuk faltan botatzen ditudanak: herriko poteo giroa, kuadrillen arteko planak edo nahi dudanean kalean lasai ibiltzeko askatasuna. Hemen kontu handiagoarekin ibili behar dugu, ez gara normalean bakarrik ibiltzen eta gauzez are gutxiago. San Martin azoka asko faltan botako dudana eguna izango da! Eta noski, nire kuadrilla eta familia ere bai, nahiz eta badakiten laster bueltatuko naizela. Egia esan, bueltatzean berriro mundua ezagutzera joateko gogoia sentituko dudanaren beldur pixka bat ere badut.

“*Vascos por el Mundo* programan lan egitea oparia da”

Sergio Izan · *Vascos por el Mundo* saioaren aurkezlea



Hamahiru urte daramatza Madrilen bizitzen Sergio Izanek (Ermua, 1991), eta bere lehen lanak interpretazioaren munduari lotuta egon ziren. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen gero eta, ekoiztetxe ezberdinetan lan egin ostean, EITBko *RH+* programan parte hartu zuen iaz. Aurten, berriemaile aritu da *Vascos por el Mundo* saioan, eta berak grabatutako programak 2026an egongo dira ikusgai.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta joan zinen Madrilera eta zein izan da zure ibilbidea bertan gaur egun arte?

Madrilera etortzeko gogoia neukan, eta Alain Kortazar ermuarrak lana topatu zidan Warner jolas-parkeko “Beldurraren etxea” (“La casa del terror”) deritzon atrakzioan. Denbora tarte baten elkarrekin egon ginen lanean, baina gero Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten hasi nintzen. Ikasketetako praktikak Tele5ko *Socialité* programan egin nituen, bideo editore, eta zeregin horretan jarraitu nuen gero ekoiztetxe batean, Telemadrid kanalarentzako bideoak egiten.

Bat-batean pantailara salto egin zenuen...

Bai, denborarekin iruditu zitzaidan lanari astindu bat eman behar niola, zerbait kreatiboagoa egin, pantailan agertu... Esan eta egin. Mikrofono bat erosi nuen Interneten eta, mugikorraren kamera erabilita, elkarrizketak egitera irten nintzen kalera. Galdera arinak egiten nituen, barre artean grabatu, eta egia esan emaitza oso dibertigarria izan zen. Bideo horiek sare sozialetara igo nituen, nire nagusiek ikus zitzaten.

Eta ikusi zituzten?

Bai, hala izan zen, eta lan-eskaintza bat egin zidaten: estilo berdineko elkarrizketak grabatzea telebista programa baterako. Hilabete batzuk eman nituen horretan, eta ekoiztetxe berak EITBrentzat lan egiten zuenez,

2024ko irailean estreinatu behar zen *RH+* programan lan egiteko proposamena egin zidaten. Donostiara bizitzera etorri nintzen urtebetez, eta programa hartan lan egitea esperientzia zoragarria izan zen.

***RH+* saioan, platoon ere agertzen zinen, ezta?**

Bai, elkarrizketak egiten nituen kolean, antzeztu, platoon irten... Oso lan nekagarria zen, baina aldi berean oso aberasgarria. Zoritxarrez, aurtengo maiatzean bukatu da, baina egia esan baneukan Madrilera bueltatzeko gogoia... Eta Madrilen nengoela, *Vascos por el Mundo* ekoizten duen ekoiztetxea nirekin harremanetan jarri zen, eta programako aurkezlea izateko proposamena egin zidaten.

“Zalantzak izan nituen, hegazkinak beldurra ematen didalako eta ez naizelako oso bidaiazalea!”

“Euskaldun gehienek ez dute haien hiria ezagutzen, guk eman behar izaten diegu gidoitxoa”



Nola hartu zenuen proposamena?

Buff, bada, nagusiekin hitz egin nuen eta esan nien hegazkinak beldurra ematen didala, ez naizela oso bidaiazalea, eta ez dakidala ingelesa! Tira, agian ez nintzela egokiena! Baina lasaitu egin ninduten eta baietz esan nuen, aukera polita zelako.

Programak ikusi zenituen, beste aurkezle batzuk nola egiten zuten ikusteko?

Programak ikusi nituen begirada kritikoarekin, nik nola egingo nuen irudikatzeke, baina ez eredu bezala erabiltzeko. Izan ere, uste dut ni aukeratu nindutela nire estiloa gustatzen zitzaielako, elkarrizketak egiteko dudana bereziagatik. Antzerkiaren mundutik nator eta uste dut horrek ukitu berezia ematen diela nire programei.

Nolakoa da *Vascos por el Mundo* sortzeko prozesua?

Programak fase ezberdinak ditu: lehenengo bost egunetan aurreprodukzioa egiten da, gero grabazioa eta azkenik edizioa. Oso lan esijientea da: pantailan agertzen diren euskaldunak topatzea izan ezik, gainontzeko lan guztia erreportariok egiten baitugu. Egun batetik bestera esaten digute nora joango garen, eta elkarrizketatu behar ditugun lauzpabost lagunaren profilak ematen dizkigute. Momentu horretan bertan haiekin kontaktuan jarri behar gara, haiek ezagutzeko eta bidaia planifikatzeko hasi ahal izateko.

Pantailan agertzen diren euskaldunek dirudien bezain ondo ezagutzen dute haien hiria?

Ez, gehienek ez dute batere ezagutzen, eta guk egin

“Egun bakoitzean eduki batzuk grabatu behar ditugu, eta jardun luze eta estresagarriak izaten dira”

“Globoan egin nuen bidaia zoragarria izan zen, baita nirekin zetorren neska ere!”



behar diegu gidoitxoa, azaldu behar dutena zehazteko. Preprodukzioke egun horiek gogorak dira, oso zaila delako lau edo bost pertsona ezberdinen ordutegiak koadratzea egun gutxitan programa grabatu ahal izateko.

Bada, zenbat egunetan grabatzen da?

Zazpi egunetan, eta zoramena da! Lana ikaragarri polita da, baina ez da bidaiatzea eta turismoa egitea, jendeak pentsatu dezakeen bezala, ez daukagu horretarako denborarik. Jardun gogorak eta luzeak dira. Egun bakoitzean eduki batzuk grabatu behar ditugu, eta gehienetan, elkarrizketatzen dugun pertsona ez dago ohituta kamera aurrean egoten, urduri dago, ez zaio testua irtetzen... Bitartean denbora aurrera doa, lotuta dituzun gauzak atzeratzen dira, ezin duzu aurpegi txarra ipini... Ez da erraza, oso estresagarria da. Egia da ere, badaudela pertsona batzuk berezko grazia dutenak, eta primeran egiten dutenak lehenengoan.

Zenbat lagunek osatzen duzue lantaldea grabazio bakoitzean?

Bi lagun: kamera eta biok. Ez dago besterik. Kamerak autonomoak dira, ez ditugu aurretik ezagutzen, eta baliteke elkarrekin ondo ez konpontzea. Ez da ohikoa, eta ni oso gustura egon naiz egokitu zaizkidan lankideekin.

Zein herrialdetara joatea tokatu zaizu?

Bi saio grabatu ditut: lehenengoa Brnon, Hego Moravian (Txekiar Errepublikak), eta bigarrena Bruselan (Belgika). Grabatu behar nuen hirugarren herrial-



dea Europatik kanpo dago, eta horrek beldur handia ematen zidan, oso urruti dagoelako, baina kontua da momentuz grabazioak bertan behera geratu direla. Bospasei lankide gara, eta guztion artean bederatz kapitulu grabatu ditugu, 2026an emitituko direnak.

Programa horietan berriemaileek esperientzia berezietz gozatzeko aukera izaten dute batzuetan. Suer-tatu zaizu horrelako aukerarik?

Egin ditudan gauza guztien artean gehien gustatu zaidana globoan bidaiatzea izan da. Naiara deitutako euskaldun batekin egin nuen bidaia hura, eta bai bidaia, bai neska zoragarriak izan ziren!

Zer izan da gutxien gustatu zaizuna?

Kamera aurrean egon den elkarrizketatua txarto pasatzen ari zela ikustea, aurrera egin ezinik... Presaka ibili behar izatea ere oso estresagarria da.

Aipatu duzu programaren azken fasea edizioa dela. Lan lasaia goa da?

Ez, inondik inora. Bidaiatik bueltan hamar egun ditugu grabatutakoa editatzeko, eta hau da zatirik gogorrena nire ustez. Erlojupeko lana da.

Grabazioak berriro hasten badira, eta lantaldera batzeko proposamena egiten badizute, baietz esango duzu?

Ez dakit, baietz pentsatzen dut, programa hau opari bat delako, baina zalantzak ditut... Bidaia hauetan konturatu naiz uste baino beldurtiagoa naizela: oso



txarto pasatzen dut hegazkinean.

Eta zer daukazu gaur egun esku artean?

Momentu honetan proposamenak jasotzeko zain nago. Azken egunetan pentsatzen ibili naiz ea telebistara bueltatuko nintzatekeen..., eta bakarrik bueltatuko nintzateke proposatzen didaten programa oso interesgarria izango balitz, orain arte egin ditudanak bezalakoak. Eta badakit proiektu apartak etorriko direla, gauza apartak heltzen zaizkidalako beti!

“Badakit proiektu apartak etorriko direla, gauza apartak heltzen zaizkidalako beti!”

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g - 941010527

juan10@yahoo.es
Ermua (Bizkaia)

TAXI

Juanan
635 70 90 90

AUTO ESCURDIA
MECANICA-ELECTRICIDAD

Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

DG
Horacio Decoración
TAPERÍA - ALTZARIK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com

“Zulo haundixe itxi dau Anderrek, bai etxien eta baitte pelota munduen be”

Unairekin, Ander Martin Estenagaren anaiarekin egon gara gazte, 47urte besterik ez ebazala zendu dan mallabittarrari buruz berbetan. Pasa dan uztailaren 29xen juen jakun Ander, eta bere ibilbide pertsonalari eta pelotazale bizitziari buruz jardun dogu.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Ume-umetatik pelotie eskuen, bere bizitzaren zati haundi bat egin dau frontoietan Anderrek, bizitza osue ez esatearren. Haisieran Mallebiko eskolako sasoiaren Xabat Areitioaurtena, Gorka Arellano eta Iñigo Pradera mallebittarrekin osatu zitxun bikotiek, eskolarteko txapelketetan batez be. Gerora, Agus Solozabalekin, Unai anaiaren bikote lez ibiltzen zanakin be jokatu zitxun txapelketa batzuk, “Ander ni baino hobie zan” dino Unaik. Mikel Gonzalez berriztarrarekin 2003en Handball modalidadeko munduko txapela ekarri eban Mallebire Irlandatik eta “afari bat egin gendun Mallebarrengoko jatetxien; herri guztixe egon ginen bertan bere garaipena ospatzen”, gogoratzen dau Unaik argazkixei begire. Hainbat argazki eta egunkarixetako errekorrekin ekarri deuskuz Unaik, “amak danak daukez gordeta”. Urte horretan Argentinan be egon ziren Unai eta Ander, eta hurrengo beste urte baten Ander Venezuelan egon zan entrenatzaile moduen Asier Berasaluzekin batera.

Esku pelotia itxi barik, trinkete munduen sartu ziren anai bixek Kepa Arroita Jauregiarekin eta azkenerarte Euskal Esku Pelota Federazioko trinketeko hautatzaille eta arduradun lez ibili da Ander. Abadiñoko Torosolo Trinketeko entrenatzaile eta bultzatzaile izen

da Arroitakin batera eta 2020ko maiatzien Kepa hil zanetik, arduradun. “Ander Keparen oso lagune zan, konfiantzazko gizona” esan deusku Txaber Zabalak, Durangoko Pelota eskolako arduradun danak. Durangoko pelota eskola honetan be lan haundixe egin dau Anderrek, “batzarren bat edo beste eginkizunen bat eduki dodanetan Ander egin izan da neska-mutikuen entrenamentuen kargu”. Trinketeko hautatzaile eta



Ander Martin mallabitarra, argazkiaren eskumako aldean.

"Urte horretan Argentinan be egon ziren Unai eta Ander, eta hurrengo beste urte baten Ander Venezuelan egon zan entrenatzaile moduen Asier Berasaluzekin batera"

entrenatzaile ibiltiaz gain, "Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Errioxako pelotarixekin jokatuteko "mundialillo" baten parte hartu eban Anderrek", eta baitte Iparraldeko txapelketetan be maila gorenen be, esan deusku Txaberrek. Euskal Selekzinuan alde eta Bizkaiko Federakuntzan be lan haundixe egin dau Anderrek, "bere ametsa Euskal Selekzinue munduko txapelketa ofizial bat jokatzen ikustie zan", komentau deusku Unai.



Omenaldi xumiek

Mallabiko jaixen barruen, abuztuaren 14-en omenaldi txiki bat egin jakon, eta hainbat jaso dauz harrezke-ro. Anderrek "zulo haundixe itxi dau bai etxien eta baitte pelota munduen be". Unai esan deuskunez, "ama oso pozik dago, kosta egiten jako ondiño, baina mingarrixen dan arren Andergaitzik da, bere akordue eta lana goraipatzearren, errekonozimendu hori jasotzie hunkigarrixen da".

Durangoko jaixen barruen, urriaren 17-xen, pelota eskoliek antolatu dabon pelota partiduetan omenalditxo eta aitorpen bat egin eutsien Anderri, Durangoko esku pelota eskolako kidiek, Euskal Selekzinoko kidiek eta Federazinoko kidiek. Anderren familiak hainbat oroigarri jaso zittuen bereziki hunkigarrixen izen zan omenalditxo baten. Bertan izen ziren Beñat eta Inhar semiek, ama Mariaje, anaia Unai, arreba Arrate eta bikote Sirats. Bizkaiko klubaren arteko txapelketa bat jokatu eben Durangoko eta Orozkoko neskek, eta Ti-

Plan

B

Coffee Lounge
Gin & Beer

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM

EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)

info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

6 8 8 6 1 9 8 9 6

zeharkale 12 bajo

48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666
EGOITZ FORMOSO col 1675

TXALAPARTA

Eguneko menua,
razioak, ogitarteak,
pintxo poteoa...

Erdikokale 13 · ERMUA

"Bere ametsa Euskal Selektzinue munduko txapelketa ofizial bat jokatzan ikustie zan"

"Ander, bai pelotan jokatzan eta baitte bizitzan be kementsue izen da, borrokalarixe, gogorra"



Ander Martin Memorialaren irabazleak.

tin III-Antxiak eta Agirrezabal-Mikel Goñik pelota gozuaz jokatu eben.

Elizpeko txapelketa, Ander Martin memoria

Aurreko urtietan lez Urriko Jaixen egitarauan barruen Elizpeko pelota txapelketa jokatu da. Aurten Ander Martin memoria izena ipini deutsie. Hilan 24en, jaixen lehenengo egunien jokatu zan finala eta Julenek eta Xabik irabazi eben torneue. Pelotari kementsuenari sarixe be emon deutsie edizio honetan. "Ander, bai pelotan jokatzan eta baitte bizitzan be kementsue izen da, borrokalarixe, gogorra, dana emoten eban fontoiien bizitzan emon daben moduen". Bere kuadrilakuen esanetan, Ander "lagunen lagun zan, ez jakon galtzie gustatzen, bere omenez atara dogu sari hau". Aurtengo edizioko pelotari kementsuena Xabat Uzuriaga izen da.

RIF

**ITURGINTZA
KONPONKETAK**

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

BERTAKO OKELAK

ETXERN EGINDAKO
TXISTORRA
ODOLOSTE
ETA
KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK

Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

KRABI

ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Perratokia izandako eraikina Askaldeatik ikusita. Argazkilaria: Estibalitz González.

Bailarako hedabidea

TOKIKO LAU HEDABIDEK DEBABARRENEKO KOMUNIKABIDE BERRIA SORTU DUTE

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Barrena Komunikazio Taldea

Sei urteko lankidetzaren prozesuaren ostean, Debabarreneko tokiko lau hedabidek —Mallabiko eta Ermuko Drogetenitturrik, Sorailuzeko Pil-pileanek, Elgoibar eta Mendaroko Barrenek eta Debako Berriketanek— erabaki dute indarrak batzea eta elkarrekin bailarako komunikazio proiektu berria eratu dute: Barrena.

Sei urteko prozesua

Proiektuak 2020ko udazkenean Eibarko Markeskua jauregian egin zen bileran du abiapuntua. Orduko hartan, Gipuzkoako Aldundiak deituta, Debabarreneko euskara elkarreetako eta tokiko hedabideetako ordezkariak eta udaletako euskara teknikariak batu ziren Eibarren eta bilera hartan bertan abiatu zuten zenbait hedabideren arteko lankidetzaren prozesua.

Handik hiru urtera, 2023ko abenduan, lau euskara elkartek —Ermuko Euskal Birusak, Sorailuzeko Pil-pileanek, Elgoibarko Izarrrak eta Debako Zuhatzak— komunikazio arloan "bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa" sinatu zuten Elgoibarren, baita jendarean aurkeztu ere, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, Debegesaren eta udalen babesarekin.

Harrezkero, hainbat pauso garrantzitsu eman dituzte lankidetzaren bidean; besteak beste, 2024an inplementatu zuten plataforma eta



Sei urteko prozesuaren ostean Barrena komunikabidea abiaraziko dute lau hedabidek.

zerbitzari digital bateratua lau hedabideetan eta 2025ean eskuratu dituzte mugikor kazetaritzan jarduteko gailuak eta trebatu dituzte kazetariak ikus-entzunezkoetan. Hain zuzen, aurtan, martxoan hasi eta uztailean bitartean, definitu dituzte Barrena proiektu komunikatibo bateratuaren oinarriak: egitura, produktu eta marka bateratua.

Batu eta berritu

Jon Sarasuak esana da euskararen biziberritze prozesuaren gainean: "Orain arte egindakoa asko da, bai-

na orain arte egin duguna egiten jarraituta, ez dugu aurrera egingo". Gogoeta horren eta antzeko beste hainbaten bidetik erabaki dute lau euskara elkarteek herrietako proiektu komunikatiboak bateratu eta berritzea. Helburua argia da: "Gaur egungo komunikazioaren sektore konplexuan lehiakorrak

Debabarreneko lau hedabidek indarrak batu dituzte bailarako hedabidea sortzeko

Barrena

Hedabide berriaren izena Barrena izango da. Debabarrena izenaren zati esanguratsua da eta, ondorioz, oso erraza da bailararen izenarekin identifikatzea. Barrena Komunikazio Taldeak bi produktu kaleratuko ditu: Barrena astekaria eta Barrena.eus webgunea.



Lau hedabideetako langileak bailarako proiektu komunikatiboa definitzeko lan-saioan. INGROUP AHOLKULARITZA

izatea euskaraz".

Multimediatasuna, pertsonalizazioa... Kontsumo ohiturak abiada bizian ari dira aldatzen eta euskara elkarteek premiazko ikusi dute beharrian berriei modu egokian erantzungo dien komunikabide bat sortzea.

Inguruko bailaretan dagoeneko sortuak daude eskualdeko hedabideak: Goiena Debagoienean, Anboto Durangaldean, Lea Artibai-ko Hitza Lea Artibain, UKT Urola Kostan... Horien ereduari jarraituz eratu dute Debabarreneneko hedabidea: Barrena. Baliabideak optimizatuz eta profesionalizazioan sakonduz, kalitatezko eduki multimediak ekoitzi eta kazetaritza hobea eskaini ahal izateko debabarrendarrei.

Astekaria eta webgunea

Hala, irailean, proiektua bultzatu



Hautu estrategikoa sinatzen (2023).

Abenduan kaleratuko dituzte Barrena astekaria eta Barrena.eus webgunea

duten lau euskara elkarteek Barrena Komunikazioa Koop. S. eratu dute. Kooperatiba irabazi asmorik gabekoa da eta euskara elkarteekin batera, langileak eta udalak ere bazkide egiteko asmoa dute.

Abenduan, berriz, herrietako al-dizkarien eta webguneen partez, Barrena astekaria eta *Barrena.eus* webgune bateratua kaleratuko dituzte eta, aurrerantzean, bailarako periodiko formatuko astekariak eta webguneak eskainiko dute bailarako eta herrietako informazioa.

Ermuko eta Mallabiko albisteez tarte propioa eta finkoa izango dute bailarako astekarian zein webgunean, eta herritarrek tarte propio horietan jarraitu ahalko dute herri bakoitzeko aktualitatea, agenda, zorion-agurrak, eskelak eta abar.

Datozen asteetan kaleratuko dute hedabide berriaren inguruko informazio gehiago.



5. Goiko parkea

Ikastetxeen postuak

2. Santiago plaza

Artisauak

3. Konbentukoa kalea

Iruñeko Alde Zahar
Erraldoien kalejira
abiapuntua

**San Martin
azokako guneak**

6. San Martin plaza
Umeentzako jolasak

1. Plaza
Postuak
Dantzak
Saiheski-pintxoak
Taloak
Errifa-zozketa
Larrain-dantza
Erromeria...

4. Martxoaren 8a plaza
Herri-kirolak

✚ Bizkaiko gaiteroak, Alboka
Musika Eskolako trikitilariak,
kalejirak, sari banaketak...

lea
arreko
aren

Azaroaren 8an burutuko da San Martin azoka, aurten animaliarik gabe

Euskal Birusak, herriko hainbat norbanakok, taldek eta erakundek elkarlanean antolatzen duten San Martin azoka ate joka dago, eta jadanik prest dago eguneko egitaraua. Erakundeek agindutakoaren arabera, aurten ez da animaliarik egongo azokan, gaixotasun kutsakor ezberdinen hedapena saihesteko helburuarekin. Hala ere, adin eta gustu guztietarako ekintzak izango dira goizetik gauera arte. Gozatu!

SAN MARTIN AZOKA - EGITARAUA

11:00

Plazan: **Postuak, saiheski-pintxoak eta taloak.**

Santiago plazan: **Artisauak.**

Herriko kaleetan barrena: **Bizkaiko gaiteroak** eta **Alboka Musika Eskolako trikitalariak.**

Goiko parkean: **Ikastetxeen postuak.**

12:00

Plazan: **Dantzak Txindurri taldearekin.**

Konbentukoatik hasita: **Iruñeko Alde Zaharreko Erraldoien kalejira.**

Martxoaren 8a plaza: **Herri-kirolak (Bizkaiko Herri Kirol Federakundea).**

San Martin plazan: **Kulki umeentzako jolasak.**

13:30

Sari banaketa.

19:00

Kalejira Bizkaiko gaiteroekin.

19:45

Errifa zozketa eta argazki lehiaketaren sari banaketa plazan.

20:00

Larrain-dantza plazan.

20:30

Gauargi erromeria plazan.

Kontuan hartzekoak:

15:30ean **baba-jan** herrikoia burutuko da Merkatu Plazan, baina tiketak agortuta daude dagoeneko! Bazkaria bukatutakoan, **Ermuan Kantuan** egingo da, **Begibide taldearen** laguntzarekin, eta nahi duten guztiek hurbildu ahal izango dira Merkatu Plazara kantuan eta dantzan egitera.

Laguntzaile bila:

Antolatzaileekin **kolaboratzeko** hainbat modu daude:

- Azokaren muntaketa edo bukatutakoan jasotzen.
- Talo eta saiheski postuetan txandak eginez.
- Txikurixetan txandak eginez.
- Errifak saltzen...

Parte hartu nahi duten herritarrek harremanetan jarri beharko dira 943 17 93 50 edo 688 63 28 74 telefonoetan edo euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi.



Petra Lizaso, erraketistetan aitzindari

Ermua zein Mallabia ugariak izan dira profesional mailan erraketara jotatzen zuten emakumetan: 12 ermuarren eta 10 mallabitarren berri daukagu. Denetan aurrenengo Petra Lizaso izan zen, "Petronea" kantxan, Cuban ere jokatu zuen atzelaria eta Ermuko Udal Liburutegiak argitaratu berri duen komikiaren protagonista.

Testua **MIGUEL FERNÁNDEZ** eta **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Jaiotzaz lekeitiarra zen, bertako Tenderia kaleko 43. peoran munduratua 1902ko otsailaren 22ko goizaldean. Aita Ignacio Lizaso Izagierre errexildarra zuen eta ama Maria Areitioaurtena Uribarrena, zaldibartarra. Petraz gain, beste hiru seme-alaba gehiago izan zituen bikoteak: Antonio, Jesusa eta Vicente. Gerora, bizitzak Ermura ekarri zuen familia eta Sallabenteko euren etxeari, Goikoerrota jatorriz, Lekeitixonekua deituko zieten aurrerantzean. Errekarren ondoan zegoen eta, armagintzarako lana egiteaz gain, argi-indarra sortzeko zentral txiki bat zuten, besteak beste, Zaldibarko zoroetxea hornitzen zuena. "Gron-gron-gron-gron", etengabeko zarata zen hango makinariak egiten zuena, Rosa Bengoa Lizaso senideak gogoratzen duen bezala.

Petra, Rosaren amaren izeko zen eta akorduan ditu etxean entzundako gauza banaka batzuk eta umearen begirada liluratua-ekin gogoan hartu zituen beste

batzuk ere. "Gure aitxitzan arrebia zonan Petra eta karakter kontuetan traza haundixa jakanen: espabilauak, alegriak... Niri Petrak grazia eitzen jostanan, ze oso ironika zonan: akordura etortzen jakonazen gauzak esan eta ala, hor konpon! Sallabenten argi eta espabilau famia ekanan", argitu du.

Eibarren hasi zuen bere kirol ibilbidea. Hamazazpi urteko zela, orduko erraketisten modara jantzita eta erraketa eskuan erretratatu zuen Indalezio Ojangurennek. Urte gutxira Ameriketara joateko aukera etorri zitzaion, profesional mailan jokatzeko, eta 1924an Kubara bidaiatu zuen. Hango prentsa historikoan Habanako *Diario de la Mar*in eta urtarrilaren 30eko datarekin, itsasoz eginiko bidaiaren berri ematen da. *De la Salle* transatlantiko frantses "ederrean", 683 bidaiarirekin batera zeharkatu zuen ozeanoa. Joandako pilotari seikote baten izenak zerrendatzen dira, tartean Petra Lizasorena, euretan andrazko bakarra. Zeharkal-



Erraketista jantzita 1919an, Indalezio Ojangurennek erretratatuta.

dian, ekaitzak gogor astindu zuen baporea, baina ez zion matxurarik eragin, artikuluan argitzen den bezala.

Habana eta Madrileko kirol-prentsan

Madrilera itzulita Chiki-Jai pilotalekuan jokatu zuen. Prentsa hemerrotekan bere partida batzuen aipamena egiten da: *La Libertad* egunkari errepublikazaleak, bere kirol atalean, euskal pilotari ere tartetxoa eskaintzen dio eta 1935eko urriaren 5eko alean Petra Lizasok Tere galiziarrarekin bikote Isabelita eta Marichu Lazuenen kontra jokatuakoa azaltzen da, azken hauek tanto bakar-rerengatik irabazi zutena. Partida apartatzat jotzen du kazetariak eta distiratzat Ermukoaren jarduna, jokaldi magistralekin. “Joko trebe eta adimentsua egin zuen. Kirol meri-



Madriletik bere lobari bidalia.
1935/05/01

“Bere joko dotore eta artistikoa berreskuratu zuen, modu zoragarrian praktikan jarri zuena”



Erraketista koadroa: tente, ezkerretik eskumara begiruta, bigarrena da Petra Lizaso.

tu handikoa, zeren artista handi honek ez baitu pilota jotzen; erraketarekin bul-tatzera mugatzen da”, hark idatziko zuenez. Hilaren 19an beste partida “itzel” baten berri ematen du argitalpen berak, Petra atzelari legez aritzen zela argitzen diguna. Jesusa Zubiaurre “Arrate” izan zuen aurreko koadroak zain-tzen eta bikotea Paquita eta Marichu Lazuenen kontra aritu zen; orain-

goan Petra eta kantxa-laguna gailendu ziren. “Petrak bere joko dotore eta artistikoa berreskuratu du, atzo modu zoragarrian praktikan jarri zuena”, goraipatu zuen kazetariak.

Azaroaren 23an, *La Libertad* egunkarian berriro jasotzen da bere izena eta oraingo honetan Hipolita Ibaibarriaga “Poli”-ren partida bat da hizpide, gero eta famatuagoa bihurtzen ari zen ermuarrak “maisutasunez” jokatu zuena. Ikuskizuna amaituta, kazetariak berarekin harmailetan egondako lagun atzerriar bat gonbidatu zuen. “Petra Lizasok, “Petrona” maitekiro deitzen diogun bezala, parte hartuko duen partidua bat ikustea nahi dut, kirol honen edertasuna berriro dastatu dezazun, eta gero Londresen *racket-player*-entzako frontoi bat eraiki dezazun”, idatzi zuen F.J. bezala sinatzen zuen kazetariak.

Chiki-Jai frontoian jarraitzen du 1936an. *La Libertad*-ek ekainaren 7an argitaratzen duenaren arabera Erraketisten Montepioa sortzeaz dute “erraketaren artistek”, eta Zuzendaritza Batzordeko buru izendatzen dute Petra Lizaso. “Oso egokia da izendapena, Petra baita lanpostu honetarako artistarik nabarmenena eta egokiena. Pertsona kultu, duin eta irizpide

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Golkua, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernod Ricard Wines
Faustino García Martínez.
T.943176075

FAMILIA LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINOS
nitida

Praba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

“Joko trebe eta adimentsua zuen, kirol meritu handikoa”

“Madrilen masajista legez aritu zen eta orduko artistak zituen bezero: Carmen Sevilla, Paquita Rico...”

zuzenekoa den aldetik, jakingo du sortzen ari den elkarteari enpresen eta pilotarien interesen artean egon behar duen adostasun-espirtua aholkatzen” idatziko zuen oraingoan F.J. kazetariak.

Artisten masajista

Jerez de la Fronteran kafetegi bat jarri zuen eta, onlineko dokumentu desberdinek erakusten duten modura, bertan dago 1944 eta 1947 urteen artean. Madrilen gero masajista modura hasi zen lanean, ez oso ohiko ofizioa bere sasoiko emakume batentzat, neurri handi baten kirolari bezala bere buruarekin trebatuz ikasitakoa. “Ona zala entzunda jakanat. Orduko artistak etortzen jakonazen: Carmen Sevilla, Paquita Rico... eta horrek danok. Klaro, horretarako dirua ekenak, edozein ezin izango zonan masajiak hartzea juan-eta. Bere sasoirako andra aurreratua izan zonan Petra”.

Madrilen emakume alargun baten etxean zegoen ostatu hartuta. Haren alabetako batek, Florita Prietok,

medikuntza ikasi nahi eta familiak formazio hori ezin- go ziola ordaindu ikusita, Petra pres- tatu zen horretara- ko. Gazteak Pedia- tria lehenengo eta gero Psikoanalisia ikasi zuen eta Petra etxe-etxeko bihurtu zen haienean. Be- tirako lagun egin- da, udaro, abuztuko San Lorentzo egu- nerako kale egin ba- rik etortzen ziren Ermura. Urteroko bihurtu zen ere Sallabenten zeuden baserri eta etxe apurretako umeak hartu eta Eibarrera eramatea mediku-azterketa egitera eta X izpietatik pasatzera. Halan gogoratzen du Ro- sak eta baita Arrate Agirregomezkortak, ume-segizio hartan behin baino gehiagotan joandakoa neskatotan.

Madrilen bizi zela, bertan hil zen 77 urte beteta, 1979ko apirilaren 14an, aurreko egunetan ebakun- tza bat egiten ziotela eta etxeko guztiak telefonoz deituta banan-banan agurtu ostean. Lurperatze zi- bila izan zuen.

Urte asko joan diren arren, bere izena argira ekarri da ostera ere: Ermuko Udal Liburutegiaren ekimenez atara berri den *Neptunoren 24 korapiloak* komikia- ren erraketista protagonista da, emakume aitzindari haiek aintzat hartzeko helburuarekin sortutako lana.



Habanatik anaiari bidalia 1926/05/22



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



“Neskek kasu egiten didaten bitartean, hemen ikusten dut neure burua”

Peio Goikoetxea · Laboral Kutxa-Euskadi taldeko kirol zuzendaria



Hainbat urtez txirrindularitza profesionalean aritu eta gero, Peio Goikoetxeak (Ermua, 1992) bizikletarekin lotutako beste zeregin batean dihardu 2023tik: Laboral Kutxa-Euskadi taldeko kirol zuzendari lanetan, hain zuzen ere. Erronkak erronka, gustura dago bukatu berri den denboraldian egindako lanarekin.

Testua **DORLETA VIDAL**
Argazkiak **MARKEL BAZANBIDE**

Jaioberria zen alabaz gozatu ahal izateko utzi zenuen txirrindularitza profesionala 2023an. Bertigo apur bat eman zizun?

Bai, bizitza guztian egin dudana gauza bakarra bizikletan ibiltzea izan delako. Kontua da aita izan nintzenean pentsatzen nuela aitatasuna eta txirrindularitza ondo uztartuko nituela, baina ikusi nuen ezinezkoa zela, eta bizikleta lagatzea erabaki nuen. Atsedean hartzeko asmoa neukan, baina lan proposamena egin zidaten berehala: Laboral Kutxa-Euskadi taldeko kirol zuzendaria izatea, eta onartu egin nuen. Uste dut oraindik ez dudala pasatu txirrindularitza utzi izanaren dolua, gaur egun ere lehian jarraitzen dudalako, beste modu batera, baina filosofia berdinarekin.

Erronka izan zen lan berri honi heltzea?

Bai, ez nuen zalantzarik izan, baina esango nuke beldur apur bat sentitu nuela. Ordura arte nire buruaz bakarrik arduratzen nintzen, baina orain ume bat daukat etxean, 14 neskez osatutako taldea aurrean...

Zein da zehatz-mehatz txirrindularitza talde baten kirol zuzendaria-

ren zeregina?

Lanak bi zati ditu: alde batetik, lasterketen aurretik txirrindularien izen-emateak egiten ditut, hotelak eta hegazkinak erreserbatu, ibilgailuak eta staffa kudeatu (masajistak, prestatzaileak, mekanikoak, kazetariak...), gonbidatuak... Kudeaketa eta logistika lana da, eta iaz erronka handia izan zen horri heltzea; aurten hobeto nabil, lanari tamaina hartuta. Bestalde, lasterketaren dinamika eta estrategia ere nire esku





daude, baina hori barneratuta daukat eta berez irte-
ten zait. Eroso nago lan horretan, eta hori da gehien
gustatzen zaidana: kotxean noanean aholkuak eman
txirrindulariei, lasterketa nola doan esan...

Zenbat lagun joaten zarete kotxean?

Normalean bi: ni aurrean, eta mekanikoa atzean.

UCI Women's Pro Continental Team kategoriako tal- dea zuzentzen duzu. Non kokatzen da kategoria hori?

Bigarren maila da, baina bigarren maila horretan
munduko talderik onena gara, eta horrek lehentasuna
ematen digu nahi dugun probetan parte hartzeko.

Egun asko igaroko dituzue etxetik kanpo...

90 lasterketa-egun inguru izaten ditugu urtean, eta
egun horiek txirrindulari ezberdinen artean banatzen

"Kirol gutxitan daude hain parekatuta emakumeen eta gizonen egoera eta baldintzak"

ditugu. Kudeaketari dagokionez, nirekin batera beste
kirol zuzendari bat dago, eta gure artean ere lasterke-
tak banatzen ditugu. Nik neuk 135 egun igaro ditut
aurten etxetik kanpo, eta gustuko daukat bidaiatzea,
nahiz eta orain lasterketa batzuk luze egiten zaizkidan.

Zer moduz joan da bukatu berri den denboraldia?

Denboraldi polita egin dugu, eta datorren urtera be-
gira nire helburua da Frantziako Tourrean etapa bat
irabaztea, eta euskaldun batekin bada, are hobeto.

Zein hizkuntzatan moldatzen zarete taldean?

Lasterketan txirrindulari guztiak euskaldunak bal-
din badira, euskaraz, baina normalean ingelesez eta
gaztelaniaz aritzen gara, hurrenkera horretan.

Zein da emakumezkoen txirrindularitzaren egoera?

Azken urteetan aldaketa handia egon da, eta gaur
egun egoera onean dago. Esango nuke kirol gutxi-
tan daudela hain parekatuta emakumeak eta gizo-
nak egoera eta baldintza aldetik. Eta Euskal Herriko
ume guztiak animatuko nituzke bizikletan ibiltzera,
gaur egun aukera polita dagoelako haien lanpostua
txirrindularitzan izateko.

Aurrera begira, zer asmo daukazu?

Duela gutxi berriztu dut kontratua, eta urtebete gehia-
go jarraituko dut taldean. Gustuko lana dut eta, nes-
kek kasu egiten didaten bitartean, hemen ikusten
dut neure burua.



Las Vegas jatetxia

Ermua Zinemiana izandakua, 1967an hartu zeben Manolo Garabal eta Mentxu Sainz de Ibarrak, ezkondu aurretixuan. Ordura arte Mesoi tabernia izan zeben Manolok, pilotari askoren biltoki zana eta haretzek proposatu zotsen Las Vegas izena ipintzia, prestigioa emongo zotsala. Hango parajietan jokaturak ziran eurentako batzuk eta izen harekin geratu zan.

Banketiak, solteratako agurrak, eguneko menuak, baiña gehixen bat ezkontzak emoten zitxuen: frito bero eta hotzak, arrain-zopia, marisko asko, eta gaiñetik legatza saltsa berdian, eta okela kontuetan, txuletia, bildotsa edo solomillua. Ezkontza tartak Alohan eitzen zotsiezen hasieran, gero Arkonadan eta beranduago Eibarko Antxonenian.



80-90 lagunentzako lekua zeken. Eztegu-bazkarira senidiak konbidatzen ziran gehixen bat, baiña ehundik gorako lagunentzako ezkontzak modan jarri ziranian zaildu egin jakuen gauzia. Bitxikeri modura, emon zeben aurreneko ezkontzako bikotia, bertan egin zitxuan seme-alaben bataio eta jaunartze ospakizunak, eta badira be bezeruak jaunartzeko bazkarixa ezezik, urtietara ezkontzakua be bertan egin dabezenak.

Eguneko menu morduak zerbitzen zeben be, gehixen bat taillarretara etortzen ziran langille, enpresario eta komertzialei zein dendetara zetozen bialantiei. Eguneroko bezeruen gustuak ondo ezagutzen zitxuen: janarixa hotza ala berua etara bihar bajakuen, ze ardo mota nahi zeban... Santixau bezperan, barru eta kanpo beteta izaten zeban eta jatordua bardiña zan guztientzat. Lagun kuadrilla batzuk urte batetik bestera lekua enkargauta lagatzeko ohitxuria zeken.

2006xan erretirua hartu eta jatetxe modura itxi egin zeben. Gaur egun Txalaparta elkartia da.





JULENE IRAZU

Loturak denboran zehar

**"Bat-batean
bost ordu pasa
dira eta beste
batzuetan,
minutu bakarrak
eternitatea
dirudi"**

Idaztea tokatzen den honetan, gaia pentsatzen noan bitartean, denborak aurrera egiten du, denbora da beti erritmo berean doan gauza bakarra. Hor dago beti, gurekin doa, edo gu berarekin, baina bera beti bere errit-mora, geldiezina, eta norberak duen kontzeptua desberdin bilakatzen da. Kuriosoa da zelan aldatu daitekeen momentuaren arabera, bizipenaren arabera eta esperientziaren arabera. Bat-batean bost ordu pasa dira eta beste batzuetan, minutu bakarrak eternitatea dirudi. Eta denboran pentsatzen noan bitartean, "lotura" edo "harremanen" inguruko idatzia egitea pentsatu dut, denborarekin erlazionatutako idatzia hain zuzen ere.

Pertsona denok, jaiotzetik eta bizitzen goazen esperientzia guztietan bizi dugun aurreneko emozioa loturarena da, amarekiko lehen *inprontatik* hasita, aita, guraso, anai-arrebak, aiton-amonak, lagunak... denak dira loturak eta denak desberdinak.

Esaten da oso garrantzitsua dela amarekin dugun lehen *inpronta* hori, bederatzi hilez umetokian gaudenetik eta kanpora irteten garen horretan bizi ditugun lehen pertzepzio horiek amarekiko lotura eta gertutasuna sortarazten lagunduko baikaitu; eta gertutasun horrek harreman-lotura ematen digun bitartean, pertenezia edo kide sentimendua finkatzen da. Eta denbora aurrera doan heinean autonomia lantzen goaz.

Eta urteak joan eta etorri, bizitzak aurrera egiten du, umeak badituzu inguruan, denbora astiro doa, egunak eta asteak luzeak dira eurentzat eta denbora "kontzeptua" nagusiekin konparatuta guztiz desberdina da, kuriosoa ezta? Momentukoa momentuan bizi dutelako, ez daude etorriko den horren zain, (Olentzero kenduta, noski, edota euren urtebetetze-eguna), baina momentura eramaten zaituzte, orainera.

Eta oraina da daukagun egia bakarra, aitak jubilatu zeneko esaldia ez dut inoiz ahazten: "Julene: jubilatu naizenetik konturatu naiz egin nahi duzun horretan denbora berdin pasatzen dela, beraz, disfrutatu ahalik eta gehien".

MARI CARMEN ALLENDE

Ama galiziarra eta aita leondarra, Ermuan jaio zen duela 58 urte, Zerukoa auzoan. Bera baino lau urte gazteagoa den neba dauka. Hiru seme alaben ama: Bingen, June eta Uxue. Elgoibarko Herri Eskolan egiten du lan, aholkulari lanetan, eta Artarrai Mendi Taldearen buruan egon den emakume bakarra izan da.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Zerukoa auzoko hirugarren kalean bizi nintzen, eta oso zorionsua nintzen. Etxearen atzeko aldean basoa zegoen, eta han ibiltzen nintzen jolasten: belaunak beltzunez beteta, kuleroak apurtuta, zauriz beteta... baina pozik! Bospasei urte nituenean, San Pelayora bizitzera joan ginen, eta hango ortuetan ematen nuen eguna.

Eta gaztaroa?

Aldaketa garaia izaten da... Eibarko Unibertsitatean ikasten hasi nintzen, eta bertara joatea abentura zen, mutilekin ibiltzen hasi ginen, lagun berriak, Eibarko jendea, parrandak, gaupasak, Santixauetako txaranga... Oso gustura ibili nintzen.

Egungo gazteekin alderatuta...

Uste dut oinarria ez dela aldatu, baina gaur egun dena doa arinago, lehen beranduagora arte ginen umeak.

Zer izan nahi zenuen handitan?

Erizaina. Gaur egun ere mundu horrek erakartzen nau, baina ondo aukeratu nuela esango nuke.

Irakasle-ikasketak egin zenituen...

Bai, eta Pedagogia Terapeutikoan ere lizentziaduna naiz. Hogeita hamabost urte daramatzat irakaskuntzari lotuta, eta zeregin ezberdinak izan ditut: tutorea, laguntza irakaslea, aholkularia... LHn, DBHn, eta Berritzegunean aritu naiz, baina lan gehiena, egia esan, hezkuntza premia berezia duten umeekin egin dut.

Zein da zure lanaz gehien gustatzen zaizuna?

Umeekin sortzen den lotura, haiekin batera ikastea... Horrez gain, umeen familiarekin eta beste irakasleekin ditugun harremanak ere oso aberasgarriak dira.

Gutxien...

Lan pertsonala da, eta sortzen diren harreman horietan gatazkak eta egoera zailak izaten dira askotan, are gehiago zailtasunak dituzten umei buruz hitz egiten badugu. Askotan, estutasuna eta mina sortzen da.

Asko aldatu da hezkuntza azken urteotan?

Bai, asko. Geletan sekulako aniztasuna dago (hizkuntzari dagokionez, kulturari, erlijioari, gaitasunei...), eta horri erantzuteko baliabideak eta tresnak ditugun arren, exijentzia maila oso altua da. Dedikazio handia



eta etengabeko formakuntza eskatzen du.

Aisialdian...

Bidaiatzea eta mendira joatea gustatzen zait: ibilbideak egin, igoerak, arrolak, eskia...

Noiz hasi zinen mendian ibiltzen?

Oso gazte. Hasieran Kalamua eta Urko inguruan ibiltzen nintzen; eta gero esparrua zabaltzen hasi nintzen...

Bikotekidea mendian ezagutu zenuen?

Ez, kalean ezagutu ginen, baina biok geneukan mendia oso gustuko eta bide luzea egin dugu elkarrekin.

Elkarrekin hasi orduko, Artarrai Mendi taldea mar txan zegoen...

Bai, mendian ibiltzen ikasteko hurbildu ginen Artarraira. Garai hartan ez zegoen GPSrik, ez mugikorrik, eta mapekin moldatzen ginen. Piriniotara joatea abentura ikaragarria zen!

Nola suertatu zitzaizun taldeko lehendakaria izateko aukera?

80. hamarkadaren amaieran asko ibiltzen ginen mendian, eta lotura handia geneukan taldearekin. Zuzendaritzako kideak aldatzea tokatu zenean, lehendakari izateko proposamena egin zidaten eta onartu nuen. Urte dezente egon nintzen karguan, gustura.

Badakizu zenbat menditan egon zaren...

Ehundaka menditan, kontinente guztietan, Amerikan izan ezik: Europan Alpeak (Mont Blanc, Monte Rosa, Breithorn...), Afrikan Toubkal eta Kilimanjaro (igo dudan altuena) eta Asian trekkinga egin dut Annapurnan, besteak beste. Amerikan Aconcagua geneukan begiz jota, baina seme-alabak jaio ziren eta ezin izan genuen burutu.

Seme-alabei transmititu diezu mendiarekiko pasioa?

Bai, oso zoriontsuak izan gara mendian eta seme-alabei ere mendian ibiltzen erakutsi diegu. Askok gustatzen zaizkie arroiak eta ferratak.

Musikazalea zara?

Bai, batez ere kotxean entzuten dut musika, nahiko altu.

Irakurtzeko ohitura daukazu?

Bai, gauero irakurtzen dut, lo egin baino lehen, infusio bat hartzen dudana bitartean. Hori da nire momentua.

Telebista?

Pelikulak gustatzen zaizkit, eta zinera joatea. Antzerkia ere zoragarria iruditzen zait.

Jatun ona zara?

"Nire onetik ateratzen nau desberdinak diren pertsonekin dagoen tolerantzia ezak"

Bai, arrainarekin eta amakegiten duen arroza oilaskoarekin gozatzen dut, baina ez zait gustatzen kozinatzea! **Badago zerbait egunero, kale egin gabe, egiten duzuna?**

Ez dut barkatzen goizeko kafea: kafea, atxikoria eta malta nahasten ditut eta kafetera italiaranoan egiten dut, osaba Santosek erakutsi zidan bezala. Azkenaldian kanela apur bat ere ipintzen diot.

Zure akats eta bertute bana?

Etxean, batzuetan, haseurretan egiten naiz tontakeriengatik, eta eztanda egiten dut. Gero segituan baretzen naiz.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Hezkuntza eta gizartean, orokorrean, desberdinak diren pertsonekin dagoen tolerantzia eza ikusteak.

Eta zerk barrea eragin?

Edozerk, umore onekoa naiz.

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Ez ditut oso gustukoak, baina moldatzen naiz, batez ere lanerako behar ditudalako.

Puntuala zara?

Kostatzen zait, nahiz eta asko hobetu dudana.

Nahiago duzu entzun edo hitz egin?

Hitz egitea gustatzen zait, baina badakit entzuten.

Zer erakutsi dizu bizitzak?

Momentukoa bizitzen, zoriontsua izaten.

Zer eskatzen diozu lagun on bati?

Ondoan egotea, momentu onetan eta txarretan.

Bizitzako egunik zoriontsuena?

Seme-alabak jaio zirenean. Oso esperientzia primitiboa da, emozioz betetakoa.

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Indarkeria matxista bukatu dela, min eta amorru handia ematen dit.

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197

SAGARDUI poltsak
Zubiurre 20 · ERMUA · 943 170305

Enter 
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33


LA FORJA KAFETEGIA

1971

E R M U A

Zearkaletik San Pelaixoko ermitara joateko zegoen lurrezko bidean, futbol zelaia eta haren ondoko ortuak banatzen zituen beti hautsez betetako hartan erretratatu zituzten tente ezkerretik eskumara Javi Gisasola, Iñaki Olañeta eta Juan Luis Munitxa. Makurtuta, Manuel García.



2002

M A L L A B I A



Ibute baserrian bizi den Jose Astarloak 50 urte eta erdi egin zituen lan Ermuko Engranajes Ureta tailerrean, horietatik 45 urte gaueko txandan. Lantegiko Nagusia Jose Ormaechea zen eta hasiera batean tailerra haren etxe azpian zegoen, Sallabenten. Bertan hasi zan lanean Jose Astarloa, baina gerora tailer berria egin zuten. Josek jaso zuen lehen soldata 240 pezetakoa izan zan. Jose 2022ko abenduaren 18an jubilatatu zen, eta argazkian Jose Astarloa bera eta Jose Ormaechea agertzen dira, lehengoa jubilatatu zen egunean.

IRAGARKI LABURRAK

SALEROSKETAK

Baserría erosiko nuke
Ermuan edo inguruan
688 642 761 (Asier)

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar
da Ermuko hortz klinika
baterako, astean jardun
bat edo birako. Bidali CVA
hortzklinika.4@gmail.com

Higienista/auxiliarra
behar da haurdunaldiko
baja baten ordezkapena
egiteko Ermuko hortz klinika
batean. Uztaitetik abendura,
lanaldi osorako. Bidali CVA
hortzklinika.4@gmail.com

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako
matematikak, euskara eta
beste ikasgaietako klaseak
ematen ditut arratsaldean.
C1 ingelesa eta euskara.
688739358

Neska euskalduna
eskaintzen da haurrak
zaintzeko. Esperientzia eta
magisteritza ikasketekin.
648625209.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Azaroaren 24a**.



Urriaren 11n
Zorionak **Paul**, zure 5.
urtebetetzean!! Segi
horrela txapeldun!
Muxu pila amatxo, aita-
txo eta Guss-en partez!



Azaroaren 8an
Zorionak **Lucia**!!!
Bederatzi urte beteko
dituzu! Askok maite
zaitugu. Musu erraldoi
bat amama, Libe, ama
eta aitaren partez.



Azaroaren 9an
Zorionak **Igor**! 10 urte
beteko dituzu! Jarraitu
hain zintzoa izaten,
Ermuko amama eta
aititeren partez.



Azaroaren 20an
Zorionaaaak **Maialen**
zure 9 urtebetetzean.
Musu asko familia
osoaren partez. Ondo
pasa eguna. Maite
zaitugu!!!



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com



SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BARRERAKO
ORDURAK

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

Silvia

peluquería

688819336

ZINEA

Hilaren 1etik 3ra:
"Bala perdida"
+ "La tregua"
Hilaren 8tik 10era:
"Karmele"
+ "Jugar con fuego"
Hilaren 15etik 17ra:
"La cena"
+ "La vida de Chuck"
Hilaren 22tik 24ra:
"Springsteen: Deliver me from nowhere"
+ "La deuda"
Hilaren 29tik 1era:
"Los domingos"
+ "Mastermind"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 6:
"Entre montañas"
Hilak 13:
"La hermanastra fea"
Hilak 20:
"Recién nacidos"
Hilak 27:
"La sabana y la montaña"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 2:
"El tesoro de Barracuda"
Hilak 9:
"Super Charlie" (euskeraz)

Hilak 16:
"Sin cobertura"
Hilak 23:
"Tom & Jerry"
Hilak 30:
"La princesa orgullosa"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

ANTZERKIA

Hilak 7:
"War Baby", Yllana taldea.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12 €.
Hilak 28:
"Badakizu plastikozko lo-
reak ez direla inoiz bizi izan,
ezta?", Tanttaka konpainia.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €.
Hilak 30:
"Las Poderosas",
Las Poderosas Teatro.
12:30ean.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera doan.

MUSIKA

Hilak 14:
Kontzertua:
Olaia Inziarte.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12 €.

Hilak 15:
Blues kontzertua:
The Big Marteen's.
20:00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 10 €.
Hilak 18:
Zezilia Deunaren kalejira.
18:30ean.
Hilak 21:
Zezilia Deunaren jaialdia.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 3 €.
Hilak 29:
Kontzertua:
Mursego: SukraMarkus.
19:30ean.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera doan.

UMEENTZAKO
EKITALDIAK

Hilak 1:
Ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.
Hilak 16:
Pintura tailerra.
11:00etatik aurrera.
Orbe Kardinala plazan.
Hilak 22:
Antzerkia: "Arrainak biho-
tzean", Mar Mar Teatroa.
17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4 €.

Hilak 28:
Haurrentzako jolasak: Hiri
Hezitzaileeen Nazioarteko
Eguna.
17:00etan.
Orbe Kardinala plazan.
Hilak 29:
Ipuin-kontaketa.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

ERAKUSKETAK

Hilaren 3tik 30era:
Margoak:
"Itsasoko haizeak II". Igartua.
Lobiano Kulturgunean.
Lanegunetan 18:00-20:00.
Asteburuan 12:00-14:00.

BESTELAKOAK

Hilak 8:
San Martin azoka.
11:00etatik aurrera.
Orbe Kardinala plazan eta
inguruko guneeetan.
Hilak 10:
Gaztañerre: Gaztainen ba-
naketa eta musika giroa.
19:00etatik aurrera.
Hilak 15:
Magostos: Gaztainen ba-
naketa eta musika giroa.
11:00etatik aurrera.
Galiziako zentroan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Otro Plan
como en casa
Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



**Odontologia
Fisioterapia**

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com



Zuri egokitzen
den odontologia
La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



OSTEOPATIA
Pablo Lucena
Osteopata Eur Ost D0

📞 617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

ERMUAN, XXXV. SAN MARTIN AZOKA

**AZAROAREN 8an
LARUNBATA**



11:00

Plazan: Postuak, saiheski-pintxoak eta taloak.
Santiago plazan: Artisauak.
Herriko kaleetan barrena: Bizkaiko gaiteroak
eta Alboka Musika Eskolako trikitilariak.
Goiko parkean: Ikastetxeen postuak.

12:00

Plazan: Dantzak Txindurri taldearekin.
Konbentukoan: Iruñeko Alde Zaharreko
Erraldioen kalejira.
Martxoaren 8a plaza: Herri-kirolak
(Bizkaiko Herri Kirol Federakundea).
San Martin plazan: Kulki umeentzako jolasak.

13:30

Sari banaketa.

19:00

Kalejira Bizkaiko gaiteroekin.

19:45

Errifa zozketa
eta argazki lehiaketaren
sari banaketa plazan.

20:00

Larraindantza plazan.

20:30

Gauargi erromeria plazan.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



BABESLEAK

